


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2017ko maiatzean aurreko hilaren aldean

2016ko maiatzaren aldean %0,4 gehitu

2017ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,4 gehitu, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,4 jaitsi.

Maiatzean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek jaitsierak izan dituzte lehengaien kostuan. Etxegintzan %0,4 aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilean %0,8. Urte artean: Etxegintzaren lehengaien kostuak %0,1 jaitsi; Obra Zibilarenak %1,9 gehitu.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2017ko maiatza 2016koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: Petrolio fintzea (%16,6), Metalurgia (%9,6), Ez metalezko industria (%2,0). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Kautxu eta plastikoa (%-4,2); Ez-metalezko mineralak (%-1,6); Industria kimikoa (%-1,1).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2017ko Maiatza

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	101,5	-0,3	0,4	-0,3
Eraikinak	101,6	-0,3	0,2	-0,3
Obra zibila	100,7	-0,6	1,7	-0,4
LEHENGAI	99,8	-0,4	0,2	-0,7
Eraikinak	100,0	-0,4	-0,1	-0,7
Obra zibila	98,7	-0,8	1,9	-0,8
LAN-ESKUA	107,4	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)